

cineclub fas

Octubre/Noviembre/Diciembre 2023 Urria/Azaroa/Abendua

El mejor cine de autor en versión original

J.B.an zinemarik onena

# Mis pequeños amores

Jean Eustache

Suzhou River
Misión a Marte
El trío en mi bemol
Alma Viva
Tetuán
Las chicas están bien
Dersu Uzala
Luzzu
Anhell69

# ¡HAZTE SOCIO/A!

La mejor oferta cinematográfica de Bilbao
Todas las sesiones en V.O.
Conferencias sobre cine
Coloquios con directores, actores, críticos...
Acceso a la biblioteca del cineclub
Invitación a eventos cinematográficos
De lunes a viernes precio de día del espectador en los Multicines

# BAZKIDE EGIN!

Bilboko zine eskaitzarik onena
Emanaldi guztiak J.B.an
Zinemari buruzko hitzaldiak
Zuzendari, aktore, kritikarekin,... sola-saldiak
Zineklubaren liburutegia erabiltzeko aukera
Zine ekitaldietarako gonbidapenak
Multicines-etan astelehenetik ostirale-ra ikuslearen egunezko prezioan



# PROGRAMA EGITARAUA

## OCTUBRE/URRIA

**3**
**SUZHOU RIVER**
Lou Ye
+ Angst, María Corral López

**10**
**MIS PEQUEÑOS AMORES**
Jean Eustache

**17**
**MISIÓN A MARTE**
Amat Vallmajor
+ Cómo mejorar tu tirada de bolos, Lorenzo Damián García

**24**
**SESIÓN KORTeN! SAIOA**
Proyección de 4 cortometrajes / 4 film laburren emanaldia

**31**
**EL TRÍO EN MI BEMOL**
Rita Azevedo Gomes

## NOVIEMBRE/AZAROA

**7**
**ALMA VIVA**
Cristèle Alves Meira

**14**
**SESIÓN FAS & ZINEBI SAIOA**

**21**
**TETUÁN**
Iratxe Fresneda Delgado

**28**
**LAS CHICAS ESTÁN BIEN**
Itsaso Arana Baztan

## DICIEMBRE/ABENDUA

**5**
**DERSU UZALA (El cazador)**
Akira Kurosawa

**12**
**LUZZU**
Alex Camilleri

**19**
**ANHELL69**
Theo Montoya
+ X. KORTeN! saria 2023

# CUOTAS
# KUOTAK

| | |
|---|---|
| Carné socio* / Kide txartela* | 35€ |
| Bono 10 sesiones / 10 sarrera bonua | 45€ |
| Cuota de preinscripción** / Izen emate kuota** | 5€ |

Hiruhilabeteko emanaldi guztiak dohainik izango dira bazkide guztientzat

Fas Zineklubak liburutegi zerbitzu osotu bat eskaintzen du, entziklopedi eta milaka liburu eta aldizkariekin

Todas las proyecciones del trimestre serán gratuitas para nuestros socios

El Cineclub Fas dispone de una completa biblioteca con cientos de libros y miles de revistas de cine

*Estudiantes y parados / ikasle eta langabeziak: 26 €
**Estudiantes y parados / ikasle eta langabeziak: 3 €
Escuelas de cine /zinema eskolak: 2 €

# PRESENTACIÓN AURKEZPENA

Uda atzean uzten dugu, eta 71 udazken ospatzen sartzen gara. Euria, hostoen erorketa, kolore okreak... zer hoberik aterpe hartzeko zinema-areto bat baino!
Bizitzako bitxikeriak, badirudi Fas zinekluba udazken batean jaio zela (ikasturteko, kirol denboraldiko edo...), baina urtarrilean izan zen, 53ko 23an. Beraz, 71ko azken txanpa honetan branka jarriko dugu 2024ko ziabogarantz (72). Ez doa records-etik, lana baizik, gozamena baizik, zinemaz gozatzea baizik, pantailan pasatzen diren eta gogoeta eragiten diguten gauza txiki (edo handi) horiez gozatzeaz.
Horrela, 12 saio (12 perla) aurkezten ditugu maitasunez eta dedikazioz, arraunketan gurekin batera (eup! eup!). 75eko Kurosawari edo 74ko Eustacheri (Eustakio diot) garamatza atzerako ispiluaren begirada batek. Edo hurbilago, baina aspaldi (23 urte, denborak hegan egiten du!), Lou Ye txinatarrari ('seigarren belaunaldikoa', 90eko hamarkadako hori, Jia Zhang-ke, Wang Xiao-shuai,... hirikoa, errealista eta objektiboa).
Urriak KORTeN! saio berezia dakarkigu, 10 urte betetzen dituen. Lau film labur (luze) ikusi ahal izango ditugu, kontatzeko lau modu, lau adierazpen desberdinak eta bereiziak...ZINEMA DA.
A[F]aroa F-rekin idazten da, Cristèle-rena, Zinebi-F-rena, Iratxe-rena edo Itsaso-rena, emozioetan, sentimenduan eta sentsibilitatean barrena leku sinestezinetara eramango gaituztenak.
Kontrazalera iristeko (abendua) bi perlarekin, bata Maltakoa eta bestea Kolonbiakoa, ezin duzu galdu. Batek itsasora eramaten zaitu eta besteak infernura. AMAIERA (71 urte).

Atrás dejamos el verano, y nos adentramos en celebrar 71 otoños. Lluvia, caída de hojas, colores ocres... ¡qué mejor que una sala de cine para cobijarse!
Curiosidades de la vida, podría parecer que el cineclub Fas nacía un otoño (por aquello del curso escolar, temporada deportiva, o...), sin embargo fue en enero, un 23 del 53, así que esta última txanpa del 71 ponemos proa hacia la ciaboga 2024 (72). No va de records, va de trabajo, de disfrute, de gozar con el cine, de esas pequeñas cosas (o grandes) que pasan en la pantalla y nos hacen reflexionar.
Así con cariño y dedicación presentamos 12 sesiones (12 perlas) que nos acompañan en la remada (eup! eup!). Una ojeada al retrovisor nos lleva al Kurosawa del 75 o al Eustache (yo digo Eustakio) del 74. O más cercano, pero hace tiempo (23 años ¡el tiempo vuela!), al chino Lou Ye (de la 'sexta generación', esa de los 90, Jia Zhang-ke, Wang Xiao-shuai,...urbana, realista y objetiva).
Octubre nos trae una sesión especial de KORTeN! que cumple 10 años. Podremos ver cuatro cortos (largos), cuatro maneras de contar, cuatro expresiones diferentes y diferenciadas...ES CINE!
No[F]iembre se escribe con F de Cristèle, Zinebi-F, Iratxe o Itsaso, que nos transportarán a través de las emociones, sentimiento y sensibilidad a lugares increíbles.
Para llegar a la contraportada (diciembre) con dos perlas, una de Malta y otra de Colombia, que no te puedes perder. Una te lleva a la mar y la otra al infierno. FIN (71 urte).

# SUZHOU RIVER

Maitasun istorio bat Shanghaiko auzoetan, Suzhou ibaiaren ertzetan. Eskuzko kamera batekin filmatua dago. Dokumentaletik hurbil dagoen estiloarekin, gaur egungo Txinara garamatza, hiri handietako auzoetara, hautsez eta janari koipetsuz beteta dauden kaleetara.
Orain hogei urte baino gehiago estreinatu zutenean arrakasta izan zuen film honek, eta orain zaharberriturik dator. Zuzendaria 60ko hamarkadan jaiotako txinatar zinemagileen belaunaldikoa da, zeinak Pekingo Zinema Eskolan graduatu baitziren; belaunaldi horren asmoa da bere herrialdeko zinema eraberritzea.
Mardar mezulari gazte bat da, hirian barrena doana motorrarekin paketeak banatzen, eta agintzen diotena egiten du galderarik egin gabe. Alkohol kontrabandista batek enkargu berezia egingo dio: Moudan alaba, 16 urtekoa, izebaren etxera eramatea. Bidaian biak erakarrita sentituko dira.

Una historia de amor en los barrios de Shanghai, en las orillas del rio Suzhou. Está rodada cámara en mano; con un estilo próximo al documental que nos lleva a la China actual en los barrios de las grandes ciudades, calles polvorientas y comida grasienta.
Una película que vuelve restaurada, después de un estreno exitoso hace más de 20 años. Su director pertenece a una generación de cineastas chinos nacidos en los años 60 y graduados en la Escuela de Cine de Pekín, que pretende renovar el cine de su país.

Mardar es un joven mensajero que va por la ciudad con su moto repartiendo paquetes y hace lo que le encargan sin hacer preguntas. Un contrabandista de alcohol le hace un encargo especial, llevar a su hija Moudan, de 16 años, a casa de su tía. En el viaje ambos se sienten atraídos.

**19:45**
3/10/2023

SUZHOU RIVER



**CHINA - 2000 - 83 min.**

**Dir.** Lou Ye
**G.** Lou Ye
**Fot.** Wong Yuk
**Fot.** Jörg Lemberg
**Int.** Zhou Xun, Jia Hongshen, Yao Anlian, Nai An

**+ Angst.** María López Corral, 2022, 15’. Fic.

**Inv** María Corral L.

# MIS PEQUEÑOS AMORES

## MES PETITES AMOUREUSES

Frantzia hegoaldeko herri txiki batean, Daniel, nerabezaroan sartzen ari den mutiko bat, pozik bizi da bere amonarekin. Amak, bikotekide berriarekin, Narbonara eramango du, eta han mekanikari ikasten jarriko da. Hala, helduen mundua ezagutzen joango da, eta sexualitatea ernatuko da bere baitan. Gai klasiko bat, eta topikoak iruditu ahal diren egoerak, baina hemen urduritasun eremu batera eramaten dutenak.
Bizitzaren, sexuaren eta maitasunaren arloko iniziazio istorio bat, osagai nostalgiko bat ere baduena, anekdota sail batekin kontatua.
Muntaketa kronologikoki lineala da, baina sekuentzia bakoitza kolpez amaitzen da, erabat argituta gelditu aurretik. Memoria flash txiki moduko batzuk dira, Danielen ikaskuntza prozesua erakusten digutenak, bakardadean, batzuetan asmatuz eta beste batzuetan huts eginez.

En un pequeño pueblo meridional francés, Daniel, un muchacho que está entrando en la adolescencia, vive feliz con su abuela. Su madre, con su nueva pareja, lo lleva a Narbona, allí tiene que trabajar como aprendiz de mecánico y comienza a descubrir el mundo de los adultos al tiempo que se despierta su sexualidad. Una temática clásica y situaciones que pueden parecer tópicas, pero que aquí se llevan a un terreno desasosegante.
Una historia de iniciación a la vida, al sexo y al amor con un componente nostálgico, contada mediante una serie de anécdotas. El montaje es cronológicamente lineal, pero cada secuencia termina abruptamente, antes de quedar claramente resuelta. Son como pequeños flashes de memoria que nos muestran el proceso de aprendizaje de Daniel, en soledad y a base de aciertos y errores.

**19:45**
10/10/2023





**FRANCIA - 1974 -123 min.**

**Dir.** Jean Eustache
**G.** Jean Eustache
**Fot.** Néstor Almendros
**Int.** Martin Loeb, Marie-Paule Fernandez, Ingrid Caven, Jaqueline Dufrane, Dionys Mascolo

**Inv.** Íñigo Ongay

ZINEBI

# X Festival de Cortometrajes
# KORTeN! FAS 2023
# X. Film Laburren Zinemaldia

**2023/10/3**
KORTeN! **Angst.** Maria Corral. 2022, 15’. Fic.

**2023/10/17**
KORTeN! **Cómo mejorar tu tirada de bolos**. Lorenzo Damian García. 2022, 12’. Fic.

**2023/10/24**
KORTeN! **Johnny By Night**, Sara Díez García. 2023, 21’ . Fic.

**2023/10/24**
KORTeN! **Hirugarren koadernoa**, Lur Olaizola. 2022, 21’. Doc.

**2023/10/24**
KORTeN! **Anti-Natura**, Brenan Duarte. 2018, 22’. Esp.

**2023/10/24**
KORTeN! **Camila Hunck**, Toño Pérez. 2022, 35’. Fic.

# Amat Vallmajor

## BIOgrafía



Ikus-entzunezko Komunikazioan graduduna Pompeu Fabrako Unibertsitatean. Ondoren, Sorkuntza Master bat egin zuen Elias Kerejeta Zine Eskolan. La perversión del signo (2019) film laburraren zuzendarietako bat izan ondoren,lehenbiziko film luzean murgilduko da, 16 milimetrotan egina eta bere familiakoek protagonizatua, Txomin del Pozok, Gerardo del Pozo Gene-k eta Mila del Pozok. Aktore ez-profesionalok road movie harrigarri honetako elkarrizketak sortu dituzte, eta espontaneotasuna eta arrunkeria politikoa eman diote pelikula lotsagabe, sentibera eta haluzinagarri honi. Horretaz gainera, La Fabrica de la Tele ekoiztetxearentzat egin du lan Amatek, telebistako programak editatzen. Eta argazki zuzendari jardun da honako lan hauetan: Cendres eta Morir antes de Morir (2023).

Graduado en Comunicación Audiovisual por la Universidad Pompeu Fabra. Posteriormente realiza un Máster en Creación en la Elías Querejeta Zine Eskola-EQZE.
Tras haber codirigido el cortometraje “La perversión del signo” (2019) emprende la elaboración de su primer largometraje, filmado en 16 mm y protagonizado por sus familiares Txomin del Pozo, Gerardo “Gene” del Pozo y Mila del Pozo. Estos actores no profesionales han creado los diálogos de esta sorprendente road movie aportando espontaneidad e incorrección política a una película gamberra, sensible y alucinógena. Además ha trabajado para la productora La Fábrica de la Tele, editando programas tv. Y director de fotografía en “Cendres” y “Morir antes de Morir” (2023)

# MISIÓN A MARTE

Euskal Herri postapokaliptiko bat eta bi anaia,Martera partitzen direnak misio batean. Txomin arkeologoa da, eta anaia doa bolantean. Hala, Eibartik atera eta Espainia iparraldean barrena joango dira, baina Generen osasun ahula eta lanbro toxiko misteriotsu bat direla medio, desbideratu egingo dira Milarengana joateko, arreba nagusiarengana.
Euskal Herritik Kataluniara doa road movie-a, normaltasun berri batean, zeinetan Amat Vallmajor zuzendaria estreinatzen baita film luze batean. Istorio zoro eta esperpentiko honek harritu egingo gaitu, eta irria, gogoeta eta sentimenduak sorraraziko dizkigu.
Zuri-beltzean filmatua dago, eta punkean inspiratzen den estetika. Musika aldetik, berriz, Dead Kennedys taldearen kantu bat du, eta Hertzainak taldearen 1983ko maketako zazpi kantu.
2022ko Gijongo Zinemaldian saritu dute.

Un País Vasco post-apocalíptico y dos hermanos que parten en una misión a Marte. Txomin es el arqueólogo y su hermano va al volante. Así Parten de Eibar y van por el norte de España, pero la frágil salud de ‘Gene’ y una bruma tóxica que aparece misteriosamente, hacen que se desvíen del camino para acudir al encuentro de Mila, su hermana mayor.
Una road movie del País Vasco a Cataluña en una nueva normalidad que es el debut en el largometraje de su director, Amat Vallmajor. La alocada y esperpéntica historia nos sorprende y nos hace reír, pensar y sentir.
Filmada en blanco y negro y con una estética inspirada en el punk, su banda sonora se compone de una canción de los Dead Kennedys y siete canciones de una maqueta autoeditada de Hertzainak en 1983.
Ha sido premiada en el Festival de Gijón 2022.

**19:45**
17/10/2022





**ESPAÑA - 2022 - 80 min.**

**Dir.** Amat Vallmajor Del Pozo
**G.** Amat Vallmajor Del Pozo
**Fot.** Jorge Castillo, Alba Bresoli
**Int.** Txomin del Pozo, Gerardo del Pozo, Mila del Pozo

**+ Cómo mejorar tu tirada de bolos.** Lorenzo Damián García, 2022, 12' . Fic.

**Inv.** Amat Vallmajor Del Pozo, Lorenzo Damián García

# JOHNNY BY NIGHT

**EH - 2023 - 21 min.**

**Dir.** Sara Díez García **G.** Sara Díez García **Fot.** Sara Díez García **Ayud Dir.** Álvaro Monsalve **Prod.** Anger Films **Int.** Facundo Corcuera, Julen González, Maite Gandia, Rubén Hernández

Leok bere burua saltzen du kalean Johnny izengoitiarekin. Alter ego horrek balio dio bere nartzizismoa elikatzeko eta segurtasunik-ezak ezkutatzeko. Gau batez bezero bat ezagutuko du bere jokoaren gaineko zalantzak sorraraziko dizkiona. Film neonoirra, mundu miserable hori erakusten duena.

Leo se prostituye en la calle bajo el nombre de 'Johnny'. Este alter ego le sirve para alimentar su narcisismo y ocultar sus inseguridades. Una noche conoce a un cliente que le hará dudar de su juego.
Un film neonoir que revela la existencia un mundo sórdido.

# HIRUGARREN KOADERNOA

**EH - 2022 - 21 min.**

**Dir.** Lur Olaizola Lizarralde **G.** Lur Olaizola Lizarralde **Fot.** Gerard Ortín Castellví **Mon.** Maddi Barber, Lur Olaizola **Prod.** Sara Hernández **Int.** Ana Torrent, Lur Olaizola

Memoria politikoaren gaineko elkarrizketak. Aktore batek eta zinemagile batek film bateko gidoia entseatuko dute, egunkari bateko zatiak hartuta, 1980tik 1985era Maria Dolores Gonzalez Katarain Yoyes hildakoaren egunkarikoak, zeina Mexikon erbesteratua egon baitzen.

Conversaciones sobre la memoria política. Una actriz y una cineasta ensayan el guión de una película que contiene partes del diario, 1980 a 1985, de la fallecida María Dolores González Katarain 'Yoyes', exilada en México.

# ANTI-NATURA

**EH - 2018 - 22 min.**

**Dir.** Brenan Duarte **G.** Brenan Duarte **Fot.** Brenan Duarte

Barne-kanpo bidaia bat, bigarren mailako errepide bat, irudiak eta melodiak, lagun egingo digutenak. Zaurgarritasuna eta behaketa. Lau ekitalditako obra esperimentala.

Un viaje exterior-interior, una carretera secundaria, imágenes y melodías que nos acompañan. Fragilidad y observación. Obra experimental en cuatro actos.

# CAMILA HUNCK

**EH - 2022 - 35 min.**

**Dir.** Toño Pérez **G.** Toño Pérez **Mus.** Aitzol Saratxaga **Prod.** Txarly Marqués **Int.** Ane Fuentes (Camila), Ramón Barea, Mikel García (Hunck), Leire Orbe, Diego Pérez, Asier Hormaza

Asturias 1950ean. Camila neskato bat da lotura lanak egiten dituena makiekin, eta arimekin bizi da iheslarien leizean. Camilak maki bat zaintzen du; ihesi dabil, eta leize batean gordeta dago. Toki horretan bi garaitako munduak batzen dira: Neardentala eta gerra zibilaren ondorena.

Asturias en 1950, Camila es una niña que actúa como enlace con los maquis y cohabita con ánimas en la 'cueva de los fugados'. Camila cuida a un maqui que huye y se cobija en la cueva. Ese lugar en el que convergen mundos de distintas épocas: Neardental y Postguerra civil.

**Inv.** Sara Díez García, Álvaro Monsalve, Lur Olaizola, Brenan Duarte, Toño Pérez y Txarly Marqués.

# EL TRÍO EN MI BEMOL
# O TRÍO EM MI BEMOL

Eric Rohmer film bat egiten ari zela, Cuatro aventuras de Reinette y Mirabelle, gidoiaren zati bat kanpoan utzi zuen, eta antzezlan bihurtu, El Trío en mi bemol. Rita Azevedo Gomesek adiskide diren bi zinemagile elkartu ditu, Pierre Leon eta Adolfo Arrieta, obraren egokitzapen zinematrografiko baten interprete izateko; maila batean baino gehiagotan ariko dira, filmak beste film bat daukalako bere barruan.

Paul eta Adelia, maitale izandakoak, maiz topatzen dira, baita zazpi aldiz ere urtean, bikote izan zireneko garaiaz filosofatzeko, neskaren maite abentura berriez hitz egiteko eta musikaz eztabaidatzeko. Adeliak rocka maite du, eta Paulek, berriz, bizia ematen du musika klasikoaren alde. Akordioak, desakordioak eta melodia bat, gero eta gehiago batzen dituena. Paraleloan, Jorgek, zinema zuzendari xelebrea bera, itsasbazterreko etxe argitsuan erroda-tuko du Eric Rohmerrek idatzitako antzezlan bakarraren egokitzapena.

Cuando Eric Rohmer se encontraba filmando Cuatro aventuras de Reinette y Mirabelle, dejó fuera una parte del guión y lo transformó en una pieza teatral que tituló El Trío en mi bemol. Rita Azevedo Gomes convoca a dos amigos cineastas, Pierre León y Adolfo Arrieta para ser los intérpretes de una adaptación cinematográfica de la obra; intervienen a distintos niveles, porque es una película que esconde otra.

Paul y Adélia, antiguos amantes, se encuentran regularmente, hasta siete veces en un año, para filosofar sobre su pasado como pareja, charlar sobre nuevas aventuras amorosas de ella o discutir sobre música. Adélia adora el rock y Paul se desvive por la música clásica. Encuentros, desencuentros y una melodía que va uniéndoles cada vez más.
En paralelo, Jorge, un excéntrico director de cine, rueda en la luminosa casa costera una adaptación de la única obra de teatro que escribió Éric Rohmer.

**19:45**
31/10/2023

# EL TRÍO EN MI BEMOL



**PORTUGAL/ESPAÑA - 2022 - 127 min.**

**Dir.** Rita Azevedo Gomes
**G.** Rita Azevedo Gomes, Obra teatral de Eric Rohmer-en antzez lana
**Fot.** Jorge Quintela
**Int.** Rita Durao, Pierre Leon, Ado Arrieta, Olivia Cabeza

SESIÓN **2504** SAIOA

# ALMA VIVA

Uda guztietan, Salome bere familiaren herrira itzultzen da oporraldian. Oraingo aldian, alaitasuna eta festa giroa etenda geldituko dira amonaren heriotzagatik. Orduan, helduak ondare kontuez eztabaidan hasiko dira, eta gatazkak izango dituzte auzokideekin hiletaren aurretik. Gatazka horien erdian, Salome amonaren kondairetan babestuko da, eta haren boterea sentitzen hasiko da; horri esker, familia batzea lortuko du.
Zuzendariaren aurreneko film luzea, ziur asko haurtzaroko oroitzapenetan inspiratua, Frantziatik Portugalera oporretan joaten zeneko garaian. Egiazkotasunez aurkezten du nola bizi diren batera tokian tokiko sinesmenak eta modernitateko balioak, eta batzuetan elkarrekin tupust egin eta beste batzuetan bat egiten dutela.
Errealismo magikoa, kostunbrismoa eta tremendismoa, umore ukitu garrantzitsuekin.

Todos los veranos Salomé regresa al pueblo de su familia a pasar las vacaciones. Esta vez, el ambiente alegre y festivo se interrumpe por la muerte de su abuela. Entonces, los adultos comienzan a discutir por temas de herencia y se producen enfrentamientos con los vecinos antes de funeral. En medio de estos conflictos Salomé se refugia en las leyendas que su abuela le contó y comienza a sentir su poder, con él conseguirá unir a su familia.
Primer largometraje de su directora, con una temática probablemente inspirada en sus recuerdos de infancia, cuando desde Francia se trasladaba a Portugal en sus vacaciones. Presenta de manera efectiva cómo las creencias locales tradicionales coexisten con los valores de la modernidad, con los que a veces chocan y otras se integran.
Combinación de realismo mágico, costumbrismo y tremendismo, con importantes vetas de humor.

**19:45**
7/11/2023

# ALMA VIVA



**PORTUGAL/FRANCIA/BÉLGICA - 2022 - 88 min.**

**Dir.** Cristèle Alves Meira
**G.** Cristèle Alves Meira, Laurent Lunetta
**Fot.** Rui Poças
**Mus.** Amin Bouhafa
**Int.** Lua Michel, Ana Pradão, Jacqueline Corado, Catherine Salée
**Inv.** Silvia Lobo (Dis/Ban)

# SESIÓN FAS & ZINEBI




**International Festival of Documentary and Short Film of Bilbao**

---

Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia

---

Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao

#zinebi65
**www.zinebi.eus**

**19:45**
17/10/2023

# Iratxe Fresneda

## BIOgrafía



Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea eta EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio Saileko irakaslea 2004tik; irakasgai hauek ematen ditu: Irudia, Generoa eta Nortasuna; eta Gidoia II: Ez-fikziozko Programak. Irakasle bisitaria izan da unibertsitate batean baino gehiagotan: Nevadakoan (AEB), Lundekoan (Suedia) eta Tolosa II-koan (Frantzia), non, gainera, bere sorkuntza zinematografikoa ikertu eta garatu baitu.
Idazle, gidoilari eta zinema kritikari da, eta komunikabideetan kolaboratzen aritzen da. Haren hastapenetan, EITBn aritu zen, batik bat irratian.
Haren ikerlanen ondorioz, 2016an, Irrintziaren oihartzunak egin zuen, bere opera prima, Mirentxu Loiarte zinemagilearen gainekoa. Hortik, gainera, Trilogía del registro sortu zen. Lanari ekinik, bigarren lan luzea sortu zen, pertsonalagoa eta esperimentalagoa, Lurralde hotzak (2018). Eta, urte batzuk geroago, Tetuán (2022).

Doctora en Comunicación Audiovisual y profesora del Departamento de Comunicación Audiovisual de la UPV/EHU desde el 2004, enseña Género, imagen e identidad y Guion II no ficción. Ha sido profesora visitante en las universidades de Nevada (EEUU), Lund (Suecia) y Toulouse II (Francia), donde además ha investigado y desarrollado su creatividad cinematográfica.
Escritora, guionista y crítica de cine, y colaboradora con varios medios de comunicación. Sus inicios profesionales están vinculados a eitb, sobre todo radiofónico.
Fruto de sus trabajos de investigación, en 2016 realiza Irrintziaren ohiartzunak, su ópera prima, sobre la cineasta Mirentxu Loyarte. Además da origen a la 'Trilogía del registro'. Manos a la obra surge su segundo largo, más personal y experimental Lurralde hotzak (2018). Y años más tarde nace Tetuán (2022).

SESIÓN **2506** SAIOA

# TETUÁN

Migratzaileen gaineko sorkuntza dokumentala. Bizitzako esperientzietan oinarrituta, Iratxe Fresnedak bidaia pertsonal batean murgilduko gaitu, non iragana eta oraina bat egiten baitira esperientzia bisual batean. Anne-Marieren, Carmeloren, Irinaren eta Mohameden istorioak korapilatuz doaz, eta hala paisaia desberdinak agertzen doaz; horrekin batera, Tetuan, Almeria eta haren basamortua, Euskal Herriko txokoak, Errumaniako herritxo bat Danubio bazterrean eta Madrilgo kaleak.
Zuzendariaren aitaren Tetuango bidaia haritzat harturik, txertatzen doaz beste protagonisten bizitzako abenturak. Hala, gizakiek bizirik irauteko izaten dituzten guduen gainean ikertu eta gogoetatzen du, eta horiek nola gelditzen diren memorian gordeta. Antropologiaren eta soziologiaren ikuspegitik, agerian jartzen da arrazismoa, estereotipoak borrokatzen dira eta migrazioaren alderdi positiboak berreskuratu.

Un documental de creación sobre personas migrantes. Basándose en experiencias de la vida real, Iratxe Fresneda nos adentra en un viaje personal dónde pasado y presente se funden en una experiencia visual. Se entrelazan las historias de Anne- Marie, Carmelo, Irina, y Mohamed, y así van fluyendo distintos paisajes; además de Tetuán, Almería y su desierto, rincones del País Vasco, un pequeño pueblo de Rumanía a orillas del Danubio y las calles de Madrid.
Con el hilo conductor del viaje del padre de la directora desde Tetuán, se insertan aventuras vitales de los otros protagonistas. Así se investiga y se reflexiona sobre las batallas que libran l0s seres humanos para sobrevivir y cómo éstas quedan en su memoria. Desde enfoques de antropología y sociología, se pone de manifiesto el racismo, se lucha contra los estereotipos y se rescatan los aspectos positivos de la migración.

**19:45**
21/11/2023



**ESPAÑA - 2022 - 95 min.**

**Dir.** Iratxe Fresneda
**G.** Iratxe Fresneda
**Fot.** Iratxe Fresneda, Juantxu Beloki
**Mus.** Jonay Armas
**Int.** Carmelo Fresneda, Anne-Marie Schwarzenbach, Irina Conca, Mohamed Iacob

**Inv.** Iratxe Fresneda

# Itsaso Arana

## BIOgrafía



Testu Interpretazioan lizentziaduna Espainiako Arte Dramatikoaren Errege Goi-Eskolan. La Tristura antzerki taldearen fundazioan partaide izan zen (2013) , non antzezlanak jokatu, sortu eta zuzendu egiten baititu. 2008an zineman Hoy se fía, mañana no filmarekin debutatu (Paco Avizanda) eta El comisario eta Eva y kolegas telesailetan arituz geroztik, interpretazio asko egin ditu nola antzerkian, hala telebistan eta hala zinema.
2016an, La reconquista lanean aritu zen, Jonas Truebarena, eta, hala, kontaktuan jarri zen Los Ilusos Films kolektiboarekin (ekoiztetxearekin) —Javier Lafuente eta Jonas Truebak sortua 2013an—. Hortik, Jonas Truebaren La virgen de agosto laneko gidoia idaztera animatu zen, zeinetan protagonista ere baden.
Lau urte geroago zuzendari lanetan estreinatu zen, Las chicas están bien (2023) obrarekin, utopia bat, bere amaren esapide batetik sortua.

Licenciada en interpretación textual en la RESAD (Real Escuela Superior de Arte Dramático). Participa la fundación del colectivo teatral La Tristura (2013), donde actúa, crea y dirige obras teatrales. Tras debutar en 2008 en cine con Hoy se fía, mañana no, Paco Avizanda, y en tv con las series El comisario o Eva y kolegas, muchas son sus interpretaciones compartiendo teatro, tv y cine.
En 2016 trabaja en La reconquista, Jonás Trueba, y así entra en contacto con el colectivo (productora) Los Ilusos Films (Fundada por Javier Lafuente y Jonás Trueba en 2013).
Y se anima a coescribir el guion La virgen de agosto, Jonás Trueba (2019), que también protagoniza.
Cuatro años después se estrena como directora con Las chicas están bien (2023), una utopía, que surge de una expresión de su madre.

**19:45**
28/11/2023

# LAS CHICAS ESTÁN BIEN



## ESPAÑA - 2023 - 85 min.

**Dir. y G.** Itsaso Arana Baztan
**Fot.** Sara Gallego
**Int.** Bárbara Lennie, Irene Escolar, Itsaso Arana, Itziar Manero, Helena Ezquerro
**Inv.** Itsaso Arana Baztan

Lau aktore eta idazle bat elkarrekin bizi dira, eta obra bat entsaiatzen ari dira errota zahar batean, mundutik aparte. Printzesaren eta haren ahizpen istorioa bost aktoreen egunerokoan barneratuko da; hala, errezela duen ohe batean entsaiatuko dute, XIX. mendeko neskatoz jantzita. Egunak badoaz eta neskak elkar ezagutzen joango dira askotariko gaiez mintzatuz, hala nola maitasuna, edertasuna, fedea, adiskidantza, heriotza, betiere grazia handiarekin tratatuta.
Sorginkeria baten istorioa ere bada, printzesak, apoak, errekak, gutunak eta are despistatutako printze bat. Era freskoan eta naturalean filmatua dago, adiskide talde batean egina balego bezala, eta inprobisatuak diruditen sekuentziak ditu.
Sailkatzen zaila den filma, nahasian doaz fikzioa eta dokumentala, komedia eta drama. Naturaltasuna eta talentua gainezka duten bost aktore, obra interesgarri bat eta esperientzia interpretatibo handia.

La convivencia entre cuatro actrices y una escritora ensayando una obra de teatro en un antiguo molino, apartado del mundo. La historia de la princesa y sus hermanas que se cuela en el día a día de cinco actrices que ensayan sobre una cama con dosel, vertidas de mujercitas del siglo XIX. Los días discurren y las chicas se van conociendo hablando de temas como el amor, la belleza, la fe, la amistad, la muerte, siempre tratados con mucha gracia.
También es la historia de un hechizo, con princesas, sapos, ríos, cartas y hasta un príncipe despistado. Rodada de manera fresca y natural, como si de un grupo de amigas se tratase, incluye secuencias que parecen improvisadas.
Una película de difícil clasificación, mezcla de ficción y documental, de comedia y drama. Cinco actrices que desbordan naturalidad y talento, una obra interesante y gran experiencia interpretativa.

# DERSU UZALA

Bi gertaera harrigarri ditugu aurrean, bata: Vladimir Arseniev, tsarraren armadako ofiziala (1906), esploratzaile zebilen Siberian, eta 1923an Dersu Uzalaren gainean idaztea erabakitzen du. Istorio hunkigarria, naturalista eta adiskidantzazkoa. Bestea: kontakizun hauekin Akira Kurosawak pantailara eraman zituen liburuan kontatzen diren gertaerak, eta film epiko bat sortu zen (Kurosawaren filmografia ia osoa bezala).
Atzean gelditu ziren Rashômon (1950), Los siete samuráis (1954), eta Barbaroja (1965), eta 1975ean maisulan hau atera zuen (ala ez da? segun); lan honetan, lortzen du ikuslea naturan barneratzea eta harenganako errespetua izatea. Gure begiak betetzen dituen paisaiaz gain, Kurosawak bizitzako beste elementu bat nabarmentzen du: adiskidetasuna, beharbada bizirik irauteko borrokatik sortua. 1975. urtean, film ez-ingeles onenaren Oscarra irabazi ez ezik (1996), Arte eta Entsegu filmik onenaren saria irabazi zuen (Espainiako Idazle Zinematografikoen Zirkuluak emana).

Estamos ante dos hechos impresionantes, uno: Vladimir Arséniev oficial del ejército del zar (1906) ejercía de explorador en Siberia, y en 1923 decide escribir sobre Dersu Uzala. Una historia conmovedora, naturalista y de amistad. Dos: con estos relatos Akira Kurosawa decide llevar a la pantalla los hechos narrados en el libro, y surge un film épico (como casi toda la filmografía de Kurosawa). Atrás quedan Rashômon (1950), Los siete samuráis (1954), o Barbaroja (1965), y en 1975 se despacha con esta obra magistral (o no? según), en la que consigue que el espectador se integre con la naturaleza, y conozca el respeto hacia ella. Además del paisaje que impregna nuestras retinas, Kurosawa destaca otro elemento vital: la amistad, quizá nacida por la lucha por sobrevivir.
Ese año 1975, además de ganar el Oscar a la mejor película en habla no inglesa (1976), obtiene el premio a la mejor película de Arte y Ensayo (Círculo de Escritores Cinematográficos).

**19:45**
5/12/2023





**URSS/JAPÓN – 1975 – 141 min.**

**Dir.** Akira Kurosawa
**G.** Akira Kurosawa, Yuri Nagibin (liburu/libro: Vladimir Arséniev)
**Fot.** Asakazu Nakai, Youri Gantoman, Fyodor Dobronravov
**Mus.** Isaac Schwartz
**Int.** Maksim Munzuk, Yuriy Solomin, Svetlana Danilchenko, Vladimir Kremena Dmitriy Korshikov, Suymenkul Chokmorov

# LUZZU

Ezustekoa, Maltako film bat, malteraz egina, Epaimahaiaren Sari Bereziarekin datorkiguna (Sundance); film txiki bat, ia eskuz egina. Alex Camelleri amerikar-maltarraren opera prima da.
Luzzu, arrantzontzi tradizional txiki bat da, Jesmarkek tripulatzen duena (maltar arrantzaleen hirugarren belaunaldikoa bera). Luzzu, hala berean, Camilleriren "bitartekoa" da familiaz, aitatasunaz, tradizioaz, arrantzaz, langile klaseaz eta abarrez mintzatzeko. Natura eta naturaltasuna; are, Mediterraneoko haize kirria ere senti dezakegu. Jesmark arrantzalea da.
Arrantza sektore industrialaren aldaketa ageri da lanean, arrantzatzeko modu tradizionala itotzen ari dena. Horretaz gainera, Jesmarken haur txikiak tratamendu mediko berezia behar du. Diru sarrerak gutxitzen ari dira familia-ekonomia txiki horretan. Horra hor gogoetarako osagaiak, parez pare jarrita "denak balio du" eta humanismo tradizionala. Filma edertasun apartekoz eginda dago.

Sorpresa, un film maltés, en idioma maltés, que nos llega con el Premio Especial del Jurado (Sundance), un film pequeño, casi artesanal.
Una ópera prima del cineasta Alex Camelleri (maltés-americano)
Luzzu, esa pequeña embarcación de pesca tradicional, que tripula Jesmark (tercera generación de pescadores malteses). Luzzu también es el 'medio' que utiliza Camilleri para hablar de familia, paternidad, tradición, pesca, clase trabajadora,...naturaleza y naturalidad, incluso podemos sentir la brisa mediterránea. En la vida real Jesmark es pescador.
La trama circula por el cambio del sector industrial pesquero que va ahogando a la pesca tradicional. Además, el bebé de Jesmark precisa tratamiento médico especial. Los ingresos económicos se reducen en esta pequeña economía familiar. Ya tenemos los ingredientes para la reflexión, y analizar 'si todo vale' frete al humanismo tradicional. El film está realizado con una belleza extraordinaria.

**19:45**
12/12/2023





**MALTA - 2021 - 95 min.**

**Dir.** Alex Camilleri
**G.** Alex Camilleri
**Fot.** Lèo Lefévrel
**Mus.** Jon Natchez
**Int.** Jesmark Scicluna, Michela Farrugia, David Scicluna, Marlene Schranz, Marta Vella, Timur Ali

**Sesión en colaboración con Economistas sin Fronteras y Colegio Vasco de Economistas / Mugarik gabeko ekonomilari-ekin eta Ekonomistak euskal elkargoarekin elkarlanean saioa**

# ANHELL69

Tituluak, jada (Anhell69-ek), argi eta garbi ematen digu arrasto bat, batetik angel (aingerua) eta bestetik hell (infernua, hondamena, mina). Eta ez gara 69-a azaltzen hasiko. Ian Duryk, jada, kantatzen zuen 1977ko hartan, Sex &Drugs& Rock and Roll (R&R beharrean jar bedi beste edozein musika mota). Baina Theo Montoya gazteak (Medellin, Kolonbia, 1992) koska bat estuago jartzen du.
Krudelkeria natural batez, Theo Montoyak amildegira garamatza, hegan egin edo infernuetara jaits zaitezkeen gune horretara, non "bizitzak ez baitu deus balio" eta horregatik sutsuki bizi behar dugu, egun edo bihar zer gertatuko den begiratu gabe. Gaur bazara, eta bihar ikusiko da.
Maisuki egina (eta sinbolismoz betea) Victor Gaviria zinemagile kolonbiarrak Medellingo kaleetan kamera geldoan hil-autoa gidatzen duenekoa.

El título, Anhell69, ya encierra pistas inequívocas, por un lado ángel (la gloria, la libertad, el anhelo), y sin embargo hell (infierno, destrucción, dolor). Y no nos pondremos a explicar el '69'. Ya lo cantaba Ian Dury allá por 1977 'Sex & Drogs & Rock and Roll' (en vez de R&R puede añadirse otro tipo de música). Pero el joven Theo Montoya (Medellín, Colombia. 1992) le da otra vuelta de tuerca.
Con una crudeza natural Theo Montoya nos traslada a al precipicio, ese punto en el que puedes volar o descender a los infiernos, en el que 'la vida no vale nada', y por ello hay que vivirla intensamente, sin mirar al mañana. El hoy es ser, y mañana ya se verá. Magistral (y simbólica) la secuencia en que el cineasta colombiano Víctor Gaviria conduce un coche fúnebre a cámara lenta por las calles de Medellín.

**19:45**
19/12/2023

ANHELL69



**COLOMBIA/RUMANÍA/FRANCIA/ALEMANIA - 2022 - 75 min.**

**Dir.** Theo Montoya
**G.** Theo Montoya
**Fot.** Theo Montoya
**Mus.** Diego Ulises Cano, Juan Ignacio Espinosa, Joaquín Sánchez
**Int.** Camilo Najar, Sergio Pérez, Juan Pérez, Alejandro Hincapié, Julian David Moncada, Camilo Machado, Víctor Gaviria, Alejandro Mendigana

**+ X. KORTeN! saria 2022,** (con directores)

**Inv.** Ganador/a de la X edición KORTeN! / X. KORTeN! edizioaren irabazlea

## Patrocinadores y colaboradores / Babesle eta laguntzaileak

**Foro del cine y de la imagen de Bilbao**

Centro cívico de Olabeaga - San Nicolás de Olabeaga, 33, 2º piso - Tel.: 944425344 - 618 318 431
info@cineclubfas:com / www.cineclubfas.com / Twitter: @cineclubfas / Facebook: Cineclub Fas / instagram: @faszinekluba

Proyecciones: Salón El Carmen (Plaza Indautxu)